

GOBIERNO DE NAVARRA

ECONOMÍA, HACIENDA, INDUSTRIA Y EMPLEO

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES INSTITUCIONALES

PRESIDENCIA, JUSTICIA E INTERIOR

EDUCACION

DESARROLLO RURAL, MEDIO AMBIENTE, Y ADMINISTRACIÓN LOCAL

SALUD

POLÍTICAS SOCIALES

FOMENTO

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

300.000 euroko diru-laguntza emango zaizkie toki-erakundeei langabe gazteak kontratatzeko

Neurri horrek 25 urtetik beherakoei eta % 33ko edo gehiagoko desgaitasuna duten 30 urtez azpikoei egingo die mesede

Miércoles, 25 de febrero de 2015

Nafarroako Gobernuak erabaki bat hartu du gaurko bilkuran eta, haren bidez, 300.000 euroko diru-laguntzak emango zaizkie toki-erakundeei, banakako ebaluazio-araubidean, 25 urtetik beherako edo % 33ko edo gehiagoko desgaitasuna duten 30 urtez azpiko langabeak kontratatzeko.

Pertsona horiek enplegu-eskatzaille modura inskribatuta izan beharko dute Nafarroako Enplegu Zerbitzuko agentzietakoren batean, eta ez dira ikasketa edo prestakuntzaren bat egiten ariko.

Diru-laguntzen % 92 Europako Gizarte Funtsak eta Europar Batasuneko Gazte Enpleguaren Ekimenak kofinantzatuko dute, [Gazte Enpleguaren Programa Eragilearen](#) esparruan.

Orain arte, neurri horrekin 23 toki-erakundeetako 55 pertsona kontratatu dira eta, horretarako, 350.000 euro inguru erabili da. Zehazki, honako udal hauek dira: Ablitas, Allo, Agoitz, Arroitz, Caparroso, Etxarri-Aranatz, Ezkabarte, Ezkaroze, Fitero, Galar, Lakuntza, Mendabia, Erriberri, Orkoién, Iruña, Ribaforada, Tuterá, Erro ibarra, Atarrabia eta Zizur Nagusia.

Gainera, laguntzak jaso dituzte ere: Arradako kontzejuak (Murillo el Cuende), Calibus zerbitzu-taldeak eta Arguedas, Valtierra, Alesbes, Milagro eta Cadreitako Oinarrizko Gizarte Zerbitzuen Mankomunitateak.